BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3073

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 10ekoa, Garraioen Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektoreko enpresak nazioartekotzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2012ko irailaren 19ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko irailaren 19ko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen du diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dela.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Autonomia Erkidegoko salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko irailaren 19ko Aginduan aurreikusitako laguntzak zeini eman zaizkien argitara ematea, Garraioen Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 10a.

Garraioen Plangintzaren zuzendaria,
MANUEL LEZA OLAIZOLA.

ERANSKINA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektoreko enpresak nazioartekotzeko laguntzetarako deialdia egin zen.

Onuraduna	Diru-laguntza
Autobuses Hermanos Arriaga, S.A.	4.000 euro